

ARRASATEKO UDAL GOBERNUAK, **UDALTZAIN** PLAZAK BETETZEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAN EGINDAKO **DEIALDI BATERATUAN** PARTE HARTZEA DELA ETA, ARRASATEKO UDALEKO ENPRESA KOMITEAK ADIERAZI NAHI DU:

Gutziz kontra gaudela udaltzain plazak betetzeko prozedurarekin, edukian eta erabakia hartzeko moduan.

Udal gobernua erabakia aldebakartasunez hartu du sindikatuekin hitz egin eta adostu gabe. Postu horiek betetzeko hautaketa prozesua jada abiatua zegoen: Pertsonal Batzordean oinarriak onartuta, aldizkari ofizialera bidaltzeko zain, eta prozesu guztia bertan behera geratu zen, bestelako arrazoirik eman gabe.

Enplegua eta eskaintza publikoa udal konpetentzia den neurrian, uste dugu udal bakoitzari dagokiola beren lan eskaintzak proposatzea eta sindikatuekin edozein aldaketa negoziatzea.

Udaltzain ereduaren inguruan, udal gobernua kontraesanetan erortzen da. Behin eta berriro esan digu gertuko polizia eredu nahi duela, baina kanpoko erakundeek egitean hautaketa prozesuak, Euskal Autonomia Erkidego mailako udaltzain eredu bakarraren bideari atea irekitzen zaio. Are gehiago, 1992. ko euskal polizia legeak, Miñoi, Foral eta Mikelete foru poliziak ertzaintzarekiko prozesu bateratzailea (fagotizatzailea) ekarri zuen. Egun, 5/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeak eta baita EAE udaltzainen deialdi bateratu hau ere udalen autonomiaren aurkako eraso zuzenak dira, eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako foru polizien antzera udaltzaingoak ertzaintzaren sekzio edo sail bat izatera daramatzate.

Uste dugu urteetan Arrasateko Udalean egin izan diren hautaketa prozesuak eredugarriak izan direla, udalak baduela nahikoa giza gaitasun eta baliabide ekonomiko horrelako prozesuak berme guztiarekin aurrera eramateko, eta aurrerantzean ere horrela izaten jarraitu beharko lukeela uste dugu.

Arrasaten, 2017ko irailaren 6an

ARRASATEKO UDALEKO ENPRESA KOMITEA